

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**XXI. mendeko piratak.**  
Zain.  
Baga Biga.  
Iraupena: 40'57".  
11 euro.

## Punk-popa, adin eta estiloetan irekia

BERRIZEN ETA DURANGALDEAN oro har betidanik izan da musika eszena aberatsa eta bizia, eta orain ere horri eusten diote. Handik datorkigu zain egoteaz gain, lan egin eta Gaztea Maketa Lehiaketa irabazi zuen taldea; honako hau da sari horren emaitza, azken bost urteotako fruituak batzen dituen. Euskaraz abestutako punk-pop edota hardcore melodikoan kokatuko nituzke, gitarra riff landu eta bereziak gidatutako kantei jarraituta.

Offspring, Millencollin eta Kalifornia-ko taldeek utzi dute hemen nolabaiteko arrastoa. Hala ere, bada Eskandinaviako punk-rock gitarreroa gogoratzen duen piezarik, baita Alemaniako punka, *Oi!* zipriztinak edota metala gordetzen duenik ere; baita beraien hastapenetako pieza pausatu eta sako-nagoak ere. Hitzak existentzial samarrak, kritikoak eta baikorrak.

[www.myspace.com/zainmusika](http://www.myspace.com/zainmusika)

### Zain

## «Gure beldurren isla dira kanta askoren hitzak»

Zer eman dizue Gaztea Maketa Lehiaketa irabazteak?

Erraztasun askorik ez. Promozio handia Euskal Herrian eta baliabide onekin diskoa grabatzeko aukera. Kontzertu gehiago irten dira, baina lana gogor egin behar da.

“Ohartu naiz nagusi egin naizela eta beldurtzen hasia naiz”. Punk-popa ez da ba gazte irauteko formula bat? Zer diozue punk-popa gaztetxoaren estiloa dela entzuten duzueneari?

Musikak ematen dizu nahi duzuna izateko edo sentitzeko ahalmena. Hau da dagoen drogarik sanoena. Ez dugu uste 100% punk-pop garunik. Badakigu entzuteko estilo erraza dela, baina adin denetara bideratuta egon daiteke.

Zeren “zain” zaudete? Nora heldu nahi zenukete?

Lokalean aritzea gustatzen zaigu. Musika alorrean ez dugu orain arte inongo helburu handirik izan eta alfer samarrak izan gara. Orain arte *stand by* egoeran egon gara, “zain”.



Orain kontzertu gehiago egiteko asmoa dugu.

“Egizu zuk nahi duzuna” da zuen lelo-etako bat. Punketik dator edo gizarte honetan biziraun behar izatetik?

Gure kasuan lotuago dago gaur

egungo gizartearen egoerarekiko. Gure beldurren isla dira kanta askoren hitzak eta beldurra ematen digu zer punturaino mugatua dagoen gure nortasuna garatzeko ahalmena: besteek pentsatuko dutenari beldurra.

Zer gertatu zen BBK Live jaialdian?

Talde baketsu batek segurtasuneko-jarrera gogor eta justiziarik gabekoa bizi izan zuela. Antolaketa akats batek eraman gintuen erraz saihestu ahal zen egoera batera. Erakutsi zigutena da, ez genuela merezi bertan egotea; BBK Live jaialdian gine-la Gaztea saria medio.

“Kanta dezagun guztiok batera mundu hobe baten alde”. Ez al da jarrera *hippyegia*?

Bai, guztiz. Baina uste dugu, gazteek “idealismo” puntu hori izan behar dutela, munduaren norabidea aldatu ahal dela. Zeinek proposatuko ditu ideia berriak, hasi baino lehen amore ematen badugu? ■